


10. Imanol Mugika eta Jesus Segurola hizkuntz ikerleak oroitzuz



Imanol Mugika Alberdi Bergaran jaio zen 1919 urtean eta Donostian hil zen 2006an.

Imanol, besteak beste, honako liburuak idatzi ditu:

Iainkoa: Sabiduría de la Naturaleza, memoria, ADN

Euzko Elea Etorburuko Esan Naia

Linguística Baska

Ciencia y Filosofía

*Teoría de la Formación de las Lenguas
Vista a la Luz del Euzkera.*

Horrez gain, etikaz, genetikaz, gizakiaz eta hainbat gairi buruzko 100 artikulua baino gehiago idatzi ditu.

Imanol Mugika soinuen sorrerara jo du euskararen jatorria interpretatzeko.




Jesus Segurola 1921 urtean jaio zen, Zumarragan, eta 2008 urtean hil da.

Izadiarenganako maitasunak eraginda milaka ordu eman ditu mendian, izadiaren mintzabidea ikasten eta aldi berean euskal hizkuntzaren sustraietara jo du, honen sorrera argitu nahian.

Berrogei urtetik gora dirauen ikerketa luze baten ondotik sortu zen 1975 urtean *Lar* izeneko liburua.

2001 urtean *Izadi eta gizaki arteko harremanetan lar* izeneko liburua argitaratu zuen, lehen lan hura osatuz eta finkatuz.





**Euskararen jatorriaren bila
hizkuntzaren baitan murgildu zarete
lurrari, ibaiari eta haizeari so.**

**Belaunaldiz belaunaldi
idatzizkoaren laguntzarik gabe iraundu duen hizkuntza ulertzeko
idatzi diren hizkuntzak baino gehiago iraundu duen mintzaira argitzeko
berba euskarri bakarra
elea jomuga bakarra.**

**Eskerrik asko eman diguzuenagatik
apal apal, sakon sakon
jatorriaren bila doan bide luzearen zati bat
elkarrekin egin dugulako.**

